

Inbertsio-zorroetako kudeaketa globaleko kudeaketa pribatu eta indibidualizatuaren kontratu mota

BALDINTZA OROKORRAK

1. Kontratuaren xedea.

- 1.1. Kontratu honek BANKUAREN aldeko kudeaketa pribatua eta indibidualizatua arautzen du, BEZEROAK une bakoitzean kontratu honi lotutako balore-kontuan edo kontu korrontean gordailututa duen eskudiru edo finantza-tresnena, eta horiek islatuta agertzen dira kontratuaren baldintza partikularretan, eta baita horiek sortutako etekinena ere. Inolaz ere, kudeaketak ezingo du gainditu, legeria aplikagarriak ezar lezakeen kasuetan salbu, BEZEROAK hasieran edo geroko aukeretan emandako ondarearen kopurua eta BEZEROAK helburu honetarako gaitutako erakunde batetik eskura dezakeen kreditu/maileguen zenbatekoa. BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A., inbertsio-zerbitzu hau emateko baimendutako kreditu-erakunde bat da eta eremu horretan Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren gainbegiratzearen menpe dago ([http: cnmv.es](http://cnmv.es)).
- 1.2. BANKUAK eragiketa eta inbertsioak egingo ditu BEZEROAK emandako informazioaren, bere inbertsio-irizpide orokorren eta kontratuaren Baldintza partikularretan xehatutako aktibo eta eragiketa moten arabera.

Zorroen kudeaketa pribatuaren zerbitzuaren egokitasuna balioztatzeko, BANKUAK BEZEROARI egokitasun ebaluazio bat gauzatu dio, eta hark bete eta sinatu egin du bere onspenez. Egokitasun ebaluazioaren emaitzatik aurrera, BEZEROARI arrisku-profil orokor bat esleitu zaio, denbora-aukera eta joera geografiko bat BANKUAK alde aurretik finkatutako sailkapenen barruan, bertan daudelarik kontratu honetako bigarren eta hirugarren Baldintza partikularrak. BEZEROAK bere ezagutza eta esperientziari, egoera finantzarioari eta egokitasun ebaluazioan barne hartutako inbertsio-helburuen egiatasuna aitortzen du. BEZEROAK bere gain hartzen du BANKUARI ahalik eta ardura handienarekin jakinarazteko aipatutako ebaluazioaren bitartez aztertu diren egoeren edozein aldaketa. BANKUAK ez du bere gain hartuko dagokion egokitasun ebaluazioaren bitartez idatziz jakinarazi ez zaizkion aipatutako egoeretan izandako aldaketek sortutako inolako erantzukizunik.

BANKUA adostutako inbertsio-irizpide orokorretatik desbideratu ahal izango da bere irizpide profesionalak hala gomendatzen duenean. Kasu horretan, desbideratzeak erregistratzeaz gain, BANKUAK BEZEROARI berehala jakinaraziko dio.

1.3. BEZEROAK inbertsio-irizpideak aldatu ahal izango ditu jarraian ezarritakoaren arabera:

- Bigarren eta hirugarren Baldintza partikularretan ezarritako arrisku-profil orokor eta/edo inbertsioaren denbora-aukera/ joera geografikoari dagokionez, aldaketa egin ahal izango da aurrekoa ordeztuko duen egokitasun ebaluazio berri bat osatu eta sinatuz. Aldeek behar bezala sinatutako ebaluazio berriaren kopia kontratu honen III. eranskinean jasota geratuko da. Egokitasun proba berriaren profil aldaketaren ondoriozko arrisku-profil orokor eta/edo inbertsioaren denbora-aukera/ joera geografikoari dagozkion inbertsio-irizpide berrien aldaketa jazoko da ebaluazio hori kontratuan gehitzen den datatik aurrera.
- Gainerako Baldintza partikularrei dagokionez, BANKUAK eta BEZEROAK aurrekoak ordeztuko dituzten Baldintza partikular berri batzuk harpidetuko dituzte eta horiek kontratu honetan jasota geratuko dira.

Hala ere, BEZEROAK onartzen du kontratu honek irauten duen bitartean inbertsio-irizpide orokorretan gertatutako edozein aldaketak, edo tresnen ateratze goiztiar batek, edo finkatutako denbora-aukera baino lehen kontratua ebazteak ondorio kaltegarriak izango lituzkeela zorroaren errendimenduan.

Inbertsio-irizpideen aldaketak ez dio eragotziko BANKUARI BEZEROAK agindu dizkion eragiketak osatzea edo hirugarrenekin inbertsio-irizpide berriak indarrean sartzen diren data baino lehen hartutako betebeharrak betetzea.

- 1.4. BANKUAK kudeatutako zorroaren zati bat osatzen duten aktibo finantzarioen erregistroa edo gordailua sustatuko du, kontratu honetara eskusiboki atxikitako balore- eta eskudiru-kontuetan dagozkien idatzoharrak sortuz.
- 1.5. BEZEROAK bere kontutik eskudirua edo aktiboak atera ahal izango ditu, zorroaren kudeaketa zabaltzen denaren gaineko aktiboak mugatu edo aldatu edo kontratu honetan aurreikusitako kudeaketa erregimenetik kendu, BANKUAREN jakinarekin gainean jarritik, dagokion eragiketa egin ahal izateko nahikoa aurrerapenarekin.

2. Emandako zerbitzuaren xehetasuna.

- 1.6. BEZEROAK BANKUARI baimena ematen dio, bere izenean eta berezko sinadurekin, erosketa, salmenta, harpidetza, diru-itzultze, intsuldaketa, truke edo bihurtzea eragiketa mota oro agin dezan Baldintza partikularretan deskribatutako balore edo finantza-tresnen kategorien gainean, eta horrela, halaber, dibidenduak jaso, interesak kobratu eta kontratuak ukitzen dituen eragiketek sortzen dituzten zergak eta gastu guztiak asetu, eskubide ekonomiko eta politikoak erabili (azken horren kasuan botoa aurretiaz ordezkatzuz eta jakinarazi ostean, halakorik balego, BANKUAREN eta ordezkaritza egiten den gaineko jaulkitzaileraren baten arteko interes gatazkaren inguruan), atxikitako betebeharrak guztiak betetzeko aukera eman, barne hartuz erakunde jaulkitzaile eta/edo ordaintzaileei informazioa eskatzeko, aurrez aipatutako eragiketena, eta orokorrean, bere esku utzi den zorroaren administrazio eta kudeaketaren garapenerako beharrezkoak diren eragiketa guztiak egiteko.
- 1.7. Halaber, BEZEROAK baimena ematen dio BANKUARI bere izenean edozein motatako beharrezko merkataritza-eragiketa egiteko BEZEROAREN izenean aktiboak eskuratzeko, gaitutako finantza-erakundearen edo fede-emaile publikoaren bitartez, eta bereziki, titulu, balore eta harpidetza-erakundeak erosi, saldu, harpidetu, lagatu eta ukatzeko egokitzat jotzen diren itun eta baldintzekin. Baimenak barne hartzen ditu diru-merkatuetan negozioa daitezkeen edozein efektu eta gainerako aktibo finantzario, eta baita atzerriko inbertsioak ere, une bakoitzean indarrean dauden lege-arauak, eta IKEen harpidetza, diru-itzultze eta intsuldaketa eragiketak.
- 1.8. BEZEROAK baimena ematen dio BANKUARI kontratu honen pean egiten diren aginduak egikartzeko negozio-erakundearen zentro batetik kanpo, hala dagokionean; bermeak ematea eragiten duten eragiketak egitea, besteak beste, zerrendatutako deribatuen operatiboan gertatzen direnak (zuk tresna horien baimendu badituzu) eta kanbio-tasako arriskua eragin dezaketen eragiketak egitea.
- 1.9. Kontuan izan behar duzu zure zorroan finantza-tresnak barne har daitezkeela, kreditu-erakunde eta inbertsio-zerbitzuetako enpresen suspertze eta ebazpenari buruzko ekainaren 18ko 11/2015 Legean aurreikusitako ebazpen erregimenaren menpekoak, hau da, birkapitalizaziorako onargarriak diren pasiboak edo bankuaren birkapitalizazio-tresnak.

3. BEZEROEK bideratutako aginduen debekua.

- 1.10. BEZEROAK ezingo ditu eragiketak egin kudeatutako zorroa osatzen duen ondarearen gainean bere ekimenaren arabera erabakiz, finantza-tresna edo eskudiruaren salmenta edo intsuldaketa eta/edo zorroaren tresnen edo eskudiruaren irteera suposatzen duten eragiketak salbu. Kasu horietan BANKUAK ez duenez inbertsio-erabakirik hartu, aipatutako erabakietatik eratorritako edozein erantzukizunetik salbuetsita egongo gara.

4. Finantza-tresna deribatuen kontratazioa.

1.11. BANKUAK kudeatutako zorrarako kontratatu, aldatu edo ezeztatu (gutziz edo partzialki) ahal izango ditu izaera finantzarioko tresna deribatuen eragiketa espezifikokoak. Finantza-tresna horien kontratazioak kontratu espezifiko edo esparru-kontratu baten (Espainiako Bankuen Elkarrekin argitaratutako Eragiketa finantzarioen esparru-kontratu, CMOF siglez ere ezaguna) formalizazioa eska dezake operatibo horren hasieran. Aipatutako kontratuaren esparruan, finantza-tresna deribatuak eskuratu ahal izango dira, idatziz edo telefonoaren bitartez. Kontratutako eragiketa, aldatutako edo ezeztatua (gutziz edo partzialki) telefonoz egitean, irmoa, loteslea eta atzeraezina izango da eta frogatze-eraginkortasuna izango du, eta hortaz, ez da uko egiteko eskubiderik izango. Horregatik, luzatu egiten dira eragiketa mota horietara, eta baita horiek kontratatzeke modura ere (aurrez ezarritako edozein bitartekoren bidez), BEZEROAK BANKUAREN alde emandako baimenak, Baldintza partikularren 6. atalean aurreikusitakoak.

1.12. Aurrekoari kalterik egin gabe, BANKUAK BEZEROAREN izenean telefonoz egindako eragiketak ondoren idatziz formalizatuko dira.

5. Eskudiruaren kontu korrontea eta baloreen kontua.

1.13. Kontratu honetatik eratorritako eragiketek sortutako kobrantza eta ordainketak Baldintza partikularretan identifikatutako kontu korrontean idatziko dira, eta hori kontratu honen xedea betetzeko erabiliko da modu eksklusiboan. Kontu horretan bertan zordunduko da BANKUAREN alde adostutako kudeaketa-komisioa, eta baita kontratu horretan zehazten diren gainerako gastuak ere.

1.14. Kontu korronte honen BEZERO titularrak hori erabili nahi badu, BANKUARI idatziz jakinarazi beharko dio hiru eguneko aurrerapenarekin gutun bidez, edo BANKUA jakinarean gainean jartzeko beste edozein bitarteko erabiliz. Aurrez adierazitako forma eta epean ez jakinarazteagatik kontuan zorpeko bat gertatuko balitz, egoera hori BEZEROARI jakinaraziko zaio jakinarazpenetik zenbatzen hasita hiru eguneko gehieneko epean aipatutako zorpeko erregulariza dezan; ez badu hori egiten, BEZEROAK espresuki baimena ematen dio BANKUARI zorroaren parte diren balore nahikoak besterentzeko aipatutako zorpekoa estaltzeko, eta BEZEROAREN konturakoak izango dira sortutako gastuak. Baloreak besterentzean BANKUAK batetik likidezia handienetik txikienerako irizpidea bete beharko du, hau da, lehenik likidezia handienekoak besterenduko dira eta azkenik likidezia txikiena dutenak, eta bestetik, BEZEROARENTZAKO kalteak minimizatzen saiatu beharko du.

1.15. BEZEROAK balore-kontua bere izenean ireki/mantentzen du eta kontratu honetako Baldintza partikularretan identifikatzen da, eta kontu horretan gordailututa geratuko dira hasierako ondarea osatzen duten baloreak edo zorroaren administrazio eta kudeaketan etorkizuneko ekarpenen bitartez eskuratzen direnak, kontratu hau egikaritzean eskuratzen diren baloreak eta aipatutako jabetzaren frogagiriak edo gainerako egiaztagiriak.

6. BEZEROARI informazioa helarazteko betebeharrak.

1.16. Hilero, BANKUAK hurrengo informazioa jakinaraziko du:

- Zure zorroa osatzen duten kontratatutako balore eta finantza-tresnen osaera xehatua, eta baita azken jakinarazpena egin zen unean zorroaren egoerarekin alderatzeko aukera ematen duen informazioa ere.
- BANKUAK, bere taldeko erakundeek edo bere erakundeek kudeatutako inbertsio kolektiboko erakundeek jaulkitako finantza-tresnetan egindako inbertsioa.
- BANKUAK edo bere taldeko erakunderen batek jaulkipen edo salmentako eskaintza publikoaren aseguratzaile edo jartzaile gisa jarduten duen finantza-tresnen harpidetza edo eskuratzea.
- BANKUAK edo taldeko erakundeek bere kontura saldutako finantza-tresnak eta BEZEROAK eskuratutakoak.
- BEZEROAREN eta BANKUAREN beste bezero batzuen artean egindako eragiketak.
- Epealdian gertatu diren zorroaren osaeraren aldaketak, barne hartuz likidezia, eta baita balore nominal eta eraginkorren xehetasuna ere, zeinak Baldintza partikularretako II. eranskinean barne hartutako balorazio-irizpideen arabera kalkulatu diren, erositako balore eta finantza-tresnen kopurua, saldutakoak edo mailegatuak, eragiketak bideratzeko erabili diren erakundeak, merkatuak, gordailututako bermeak, OTC eragiketetan kontrapartida gisa jarduten duten erakundeak,

kupioen edo dibidenduen ordainketak, bihurketa-datak edo truke eta amortizazioak.

BEZEROAK ez balu aukeratuko Baldintza partikularretan euskarri iraunkor batean egikaritutako transakzio bakoitzari buruzko informazio indibiduala eta BANKUAK transakzioa baieztatuko dion abisu bat jasotzea, aldizkako izaerarekin hornitutako informazioan, aurreko paragrafoan xehatutako informazioaren batera egindako agindu mota, egikaritze data eta ordua, erosketa edo salmenta adierazlea edo aginduaren izaera, bolumena, unitate-prezioa eta guztizko kontraprestazioa ere emango da.

- Kasu horietakoren bat existituko balitz, baloreen finantzaketa eragiketaren objektu izan diren tresnen edo funtsen adierazpena, eta baita 2014/65/UE Direktibari lotutako aktiboak eta lotuta ez daudenak, eta bere egikaritze-neurriak, eta titulartasun aldaketa duen berme finantzarioko akordioetara lotuta daudenak ere bai.
- Zure jabetzari eragin diezaieken berezitasun batzuen eraginez eraginda dauden aktiboaren adierazpen argia.
- Baloreak, eskudirua eta beste aktibo finantzario batzuk gordailututa, administratuta edo erregistratuta dituzten erakundeak, kontu globalak espezifikatuta (orotarako kontuak).
- Informazioak erreferentzia egiten dion epealdian zehar zorroaren errendimenduaren eta Baldintza partikularretan adostutako inbertsioaren errendimendu edo benchmarkaren erreferentziatzeko adierazlearen arteko konparazioa. Hori BEZEROAREN zorroaren inbertsio-helburu eta finantza-tresna motetan oinarritzen da. Halaber, informazioak erreferentzia egiten dion epealdian zehar zorroaren errendimenduaren konparatiboaren informazioarekin batera aurkeztuko da, erreferentziatzeko parametroaren edo benchmarkaren jarduketari dagokionez.
- Informazio-epealdian zehar sortutako ordainsari eta gastuen guztizko zenbatekoa, gutxienez kudeaketa ordainsarien eta egikaritzeari lotutako kostuen guztizkoa xehatuz.
- Zorroaren tresnei dagozkien eskubideak ematen dituzten beste sozietate-eragiketa batzuk.

1.17. Urtean behin, BANKUAK BEZEROARI helaraziko dio hurrengo informazioa:

- Emandako zerbitzuaren ondorioz BANKUAK jasotako pizgarriak, 8. klausulan adierazi bezala.
- Kudeatutako zorroan aipatutako zergen aitorpena egiteko beharrezko datuak.

1.18. BEZEROAK eskatzen duenean, BANKUAK informazioa gehigarria emango dio egindako eragiketei, bere zorroari buruz egindako kontsultei eta eragiketak bideratzeko erabilitako erakundeei buruzkoa.

1.19. Jakinarazi egingo zaio bere zorroaren balio globalak, informazio-epealdi bakoitzaren hasieran baloratu moduan, bere balioa % 10 galtzen duenean, eta ostean, % 10eko multiploetan jakinaraziko zaio, araudi aplikagarrian ezarrita dagoen moduan.

1.20. Zorroak palanka-efektudun finantza-tresnetan posizioak barne hartzen baditu edo pasibo kontingenteak eragiten dituzten eragiketak, jakinarazi egingo dio tresna bakoitzaren balioa % 10 galtzen duenean eta, ondoren, % 10eko multiploetan, araudi aplikagarrian ezarrita dagoen moduan. BANKUAK aipatutako informazioa helarazi ahal izango dio dokumentu bakarrean, hainbat tresnerei buruzkoa.

1.21. Erantzukizun kontingentea duen eragiketa baten bermerik gabeko zorpekoaren posizio batean barne hartzen dituzten transakzioen kasuan, BEZEROARI jakinaraziko zaio ezarritako epean, aurreko paragrafoan aipatutako ataria gainditzen duen edozein galeraren inguruan.

1.22. BANKUAK, indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera, BEZEROAREN ordezkariak eskatzen duenean kudeatutako zorroari dagozkion akzioetatik eratorritako eskubide politikoak erabiltzeko, BEZEROARI jakinarazi beharko diote espresuki BANKUAREN eta bere taldearen edozein harreman edo interes-lotura ordezkariak aipatzen dituen sozietateren batekin.

7. BANKUAREN jarduketa.

- 1.23. BANKUAK egikaritze hoberako politika bat dauka eta BBVAren jarduketa arautzen du, eta interes-gatazken politika bat. Horiek BANKUAREN webgunean eskuragarri daude.
- 1.24. BANKUAK BEZEROARI ohartaraziko dizkio bere jardueraren garapenean gertatzen diren interes-gatazkak. Aldeek hitzartu dute eta erantzule izango dira kontratu honi aplikatzeko aplikagarriak diren Balore merkatuaren legerian aurreikusitako portaera-arauak.
- 1.25. BANKUAK taldekatu ahal izango ditu hainbat bezeroren eragiketak indarrean dagoen araudian ezarritako mugen barruan. BANKUAK banaketa proportzionaleko edo bezero partikularren arteko eragiketen banaketarako irizpide objektibo batzuk ditu, eta interes-gatazka posibleak ebaztekoak, eta jarraian xehatzen dira:

Balore jakin baterako taldekatutako aginduak jaulkitzerakoan, edozein arrazoi dela eta: (i) ezin da egikaritu aginduaren guztizkoa, BANKUAK proportzionalki banatuko ditu baloreak eragindako bezeroren artean, bezero bakoitzari dagokion aginduaren bolumenaren arabera (ii) aginduaren balore objektuak prezio desberdinetara eskuratu edo transmititzen dira, BANKUAK baloreak esleituko ditu kontuan hartuz, batetik, bezero bakoitzak esleituta daukan identifikazio-zenbakia, eta bestetik, prezio desberdinen egikaritzearen orden kronologikoa. Horrela, identifikazio-zenbaki txikiagoa duen bezeroari lehenbizi egikaritutako prezioak egokituko zaizkio.

BANKUAK hitzematen du edozein kasutan irizpide horiek aplikatzeko eta soilik aldatuko dira alde aurretik BEZEROARI jakinarazita.

- 1.26. BEZEROAK bere adostasuna adierazten du BANKUAK bere webgunearen bidez: www.bbva.es, egikaritze-politika eta interes-gatazkak prebenitu eta kudeatzeko politika bere eskura jarriko duelako; horiek arautzen dute BANKUAREN jarduketa haietan aurreikusitako kasuetan. BEZEROAK eskatu egin dezake euskarri iraunkorraren bitartez edo webgunearen bitartez aipatutako politikari buruzko xehetasun gehiago.
- 1.27. BANKUAK erantzun egingo du BEZEROARI eragin diezazkiokeen kalteen aurrean, kontratu honetan hartutako betebeharren ez betetze gezurti edo axolagabeagatik. Hala ere, BEZEROAK libratu egingo du kudeaketaren azken emaitza ekonomikotik, eta bereziki Balore merkatuetan inbertsioari atxikitako arriskutik eratorritako galera posibleetatik eratorritako erantzukizunaz.

8. BANKUAREN ordainketa eta PIZGARRIAK.

- 1.28. BANKUAK BEZEROARENGANDIK jasoko ditu zorroa kudeatzeari eta bitartekaritza gastu eta beste komisio batzuei dagozkien tarifak, kontratu honen Baldintza partikularretan Eranskin gisa barne hartutako baldintza ekonomikoetan aurreikusitakoaren arabera. Horiek ez dituzte gaitzuzko inolaz ere tarifen informazio-liburuxkan jasotakoak. Halaber, zorroa baloratuko da aipatutako Baldintza partikularretan aurreikusitako eraginaren arabera.
- 1.29. BANKUAK BEZEROARI jakinaraziko dio kontratu honi eragingo dioten komisio eta gastu durundagarrien tarifetan gertatzen edozein aldaketa. BEZEROAK aipatutako informazioa jasotzen duenetik bi hilabete izango ditu kontratuaren iraungitzea eskatzeko, eta ezingo zaizkio aplikatu tarifa berriak epe hori igaro arte. Hala ere, BEZEROARENTZAT onuragarria denean berehala aplikatuko da tarifa.
- 1.30. BANKUAK ez du onartuko hirugarrenen aldetik ordainsari edo pizgarririk BANKUAK bere kontura egiten dituen inbertsioen ondorioz, eta jasotzekotan, ordaindu egingo dizkizugu, diru-irabaziak ez direnak salbu; horiek jaso daitezke eta, besteak beste honakoan oinarritutako irabaziak dira:
- finantza-tresna edo inbertsio-zerbitzu bati dagokion informazioa edo dokumentazioa, izaera generiko edo pertsonalizatua duena, eta bezero jakin baten egoerak islatzeko erabiltzen dena;
 - hirugarrenek idatzitako materialak, jaulkitzaile batek edo jaulkitzaile posible batek agindu eta ordainduak, aipatutako sozietatearen jaulkipen berri bat sustatzeko;
 - finantza-tresna edo inbertsio-zerbitzu jakin baten onurei eta ezaugarriei buruzko hitzaldi, mintegi edo bestelako

prestakuntza-jardueretan parte hartzea;

- balio gutxiko arrazoizko ordezkariak gastuak, esaterako, enpresa-bilera edo hitzaldi, mintegi edo bestelako formakuntza jarduerak bateko dietak.

Diruzkoak ez diren irabazi horiek emandako zerbitzuaren kalitatea hobetu nahi dute, izan ere BANKUAK kontuan izango du produktuen sorta zabala, barne hartuta BANKUAREKIN lotura esturik gabeko hirugarren hornitzaileen tresnen kopuru egokia, eta ondorioz, ez diote kalterik egingo BEZEROAREN interes onenaren alde jarduterakoan.

9. Kontratuaren iraupena eta ebazpena.

- 1.31. Kontratuaren iraupena mugagabea da, eta aldeetako edozeinek alde bakarretik amaitutzat jo dezake indarraldiaren edozein unetan, aldez aurretik beste aldeari gutxieneko hilabeteko aurrerapenarekin abisatuz, eragotzi gabe BANKUAK kontratuaren ebazpenaren unean likidatzeko dituen egindako eragiketengatik komisioak eta kontratuaren bidez adostutako beste gastu batzuk jasotzea. Kontratu hori amaitzeak ez du kontu korrontearen edo gordailu-kontratu eta/edo baloreen administrazioaren ezeztatzea suposatzen; horien saldoak haien titularren eskura mantenduko dira eta dagozkien kontratuan aurreikusitako erregimenean jarraituko dute.
- 1.32. Kontratuaren aldez aurretik ezeztatzeak ez du eragingo jakinarazpenaren aurretik hitzartu ziren eta arribidean dauden eragiketen tramitatze, likidazio eta ezeztatzean. Eragiketa horiek aplikagarriak zaizkien baldintzen arabera zuzentzen jarraituko dira, kontratu honen hitzarmenaren arabera.
- 1.33. Ez da izango kontratuaren ebazpenerako, ezta hori egiteko BEZEROAK BANKUARI emandako agindurako arrazoia, kontratuaren edozein titularrek bat-batean gertatutako ezgaitze egoera, tutoretzako organismoa osatzean edo beranduago agindutako ebazpen judizialak hala zehaztu ezean, karguaren ariketan esleitutako tutoreak eskatuta.
- 1.34. Kontratuaren ebazte ostean, BANKUAK egindako kudeaketaren kontuak emango ditu, araudi aplikagarrian ezarritakoaren arabera.

10. Jakinarazpenak.

- 1.35. Kontratu honetatik eratorritako aldean arteko komunikazioak eta informazio-bidalketak kontratuaren harpidetzen den hizkuntza berean egingo dira, eta edozein bitarteko erabiliz ere, baldin eta bitarteko horien segurtasuna eta konfidentzialtasuna frogatuta badago eta informazioa paperean erreproduzitzeko aukera ematen badu. BEZEROARI komunikazio horiek eta informazioa eman ahal izango zaizkio postaz, posta elektronikoz (kasu horretan, BEZEROAK helburu horietarako jakinarazitako helbide elektronikora), edo bbva.es (pertsona fisikoen kasuan) edo bbvanetcash.com (pertsona juridikoen kasuan) webgunean bidez, eta BEZEROA horietara sartuko da dagozkion gakoak erabiliz. Titular multzoaren kasuan, edozein bezerori egindako jakinarazpenak guztientzako balioko du. Hori guztiak ez die kalterik egingo BEZEROAK eman ditzakeen telefono bidezko aginduei, une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera.
- 1.36. BEZEROAK hirugarren bati jakinarazpenak bidaltzea aukeratzen duenean, berariazko baimena BANKUARI jakinarazi beharko dio.

11. Bezeroarentzako arreta-zerbitzua eta ikuskapen agintariak.

- 1.37. Bankuak bezeroen eskura jartzen du bezeroarentzako arreta-zerbitzua, kontratu honekin erlazionatutako kexa eta erreklamazioak kudeatzeko:

Bezeroarentzako arreta-zerbitzua.

Posta-kutxa 1598. 28080 Madril

helbide elektronikoa: servicioatencioncliente@grupobbva.com

Doako telefonoa: 900812679

Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren ebazpenarekin ados ez egonez gero, BEZEROAK Bezeroaren defendatzailearengana jo dezake bigarren instantzian:

Posta-kutxa 14460. 28080 Madril

Helbide elektronikoa: customerdefensor@bbva.com

Dena den, Bezeroaren defendatzailearengana zuzendu aurretik erreklamazioa Bezeroarentzako arreta-zerbitzuan aurkeztu beharko da. Bankuak bezeroaren defentsarako araudi bat du, eta bertara sar daiteke bankuaren edozein bulegotan eskatuz edo bbva.es webgunearen bitartez, bezeroaren arretarako berariazko esteketan.

Kexa eta erreklamazioak ebazteko gehieneko epea bi hilabete da. Epe hori igaro ondoren eta bankuak arestian azaldutako bideak agortu ondoren kasua ez balu ebatzi, edo BEZEROA ez balitz ados egongo bere erreklamazio edo kexari buruzko azken erabakiarekin, hurrengora zuzendu ahal izango du: Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala, Edison kalea 4, 28006, Madril.

1.38. Hurrengoak dira bankuaren ikuskapen autoritate eskudunak:

Espainiako Bankua (Alcalá kalea 48, 28014 Madril)

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala (Miguel Ángel kalea 11, 28010 Madril)

12. Gordailuak Bermatzeko Funtsa.

1.39. Gordailuak Bermatzeko Funtsaren araudiarekin bat etorritik, estaldura bikoitza dago: bata, gordailuetarako; eta bestea, baloreetarako. Bi kasuetan, bermearen zenbatekoa gehienez 100.000 eurokoa da.

1.40. Gordailuen estaldurari buruzko oinarritzko informazioa.

Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A.-n mantendutako gordailuak Gordailuak Bermatzeko Funtsak bermatuta daude (1). Estalduraren muga: 100.000 euro gordailugileko eta kreditu-erakundeko (2). Hurrengo izen komertziala kreditu-erakundearen parte da: BBVA. Kreditu-erakunde berean gordailu gehiago badituzu, kreditu-erakunde bereko gordailu guztiak batu egiten dira eta guztizkoa 100.000 euroko mugara lotuta dago (2). Beste pertsona batekin/batzuekin partaidetzan kontu bat baduzu, 100.000 euroko muga gordailugile bakoitzari aplikatuko zaio bereizita (3). Dirua itzultzeko epealdia kreditu-erakundearen konkurtsoaren kasuan: 7 egun baliodun (4). Itzultzea egiteko erabiliko den moneta: Euroa. Harremanetarako: José Ortega y Gasset kalea, 22 - 5. solairua, 28006 - Madril, Telefono-zenbakia +34 91 431 66 45, helbide elektronikoa: fogade@fgd.es. Informazio gehiago eskuratzeko: www.fgd.es. Gordailugileak ordainagiria jaso izanaren adierazpena:

Informazio gehigarria:

(1) bere kreditu-erakundea Babes Sistema Instituzional baten parte da, Gordailuak Bermatzeko Sistema ofizialki ezagutzen dena. Horrek esan nahi du sistema horretako kide diren erakunde guztiek elkar babesten dutela kaudimengabezia saihesteko. Zure kreditu-entitatea kaudimenik gabe geratzen bada, 100.000 €-ra arte itzuliko zaio zure gordailuari.

(2) Ezingo balitz erabili gordailu bat kreditu-erakunde bat bere betebeharrak finantzarioak betetzeko egoeran ez dagoelako, Gordailuak Bermatzeko Sistemak dirua itzuliko die gordailugileei. Diru-itzultzea gehienez 100.000 eurokoa izango da kreditu-erakunde bakoitzeko. Horrek esan nahi du kreditu-erakunde berean egindako gordailu guztiak batzen direla, estaldura-maila zehazteko. Esaterako, gordailugile batek aurrezki-kontu bat badauka 90.000 euroekin eta kontu korrante bat 20.000 euroekin, 100.000 euro itzuliko zaizkio soilik.

(3) Partaidetzako kontuetarako babes-muga.

Partaidetza kontuen kasuan, 100.000 euroko muga gordailugile bakoitzari aplikatuko zaio.

Hala ere, bazkide edo izaera juridikorik gabeko sozietate, elkarte edo antzeko izaerako talde bateko kide gisa bi pertsona edo gehiagok kontu batean eskubideak dituztenean, kontu horretako gordailuak agregatu egiten dira eta gordailugile bakarrak egingo balitu bezala tratatuko dira, 100.000 euroko muga kalkulatzeko.

(4) Diru-itzultzea.

Gordailuen berme-sistemaren arduraduna da Gordailuak Bermatzeko Funtsa, José Ortega y Gasset kalea 22 - 5. solairua, 28006 - Madril, telefono-zenbakia +34 91 431 66 45, helbide elektronikoa: fogade@fgd. Gordailuak itzuliko ditu (100.000 euroko gehienekora arte) hurrengo epeetan: 20 egun baliodun (2018ko abenduaren 31ra arte); 15 egun baliodun (2019ko urtarrilaren 1aren eta 2020ko abenduaren 31aren artean); 10 egun baliodun (2021eko urtarrilaren 1aren eta 2023ko abenduaren 31aren artean) eta 7 egun baliodun (2023ko abenduaren 31tik aurrera). 2023ko abenduaren 31ra arte Kreditu-erakundeek Gordailuak Bermatzeko Funtsak ezingo balu itzuli beharreko zenbatekoa zazpi egun balioduneko epean, gordailugileei ordainduko die, eskaera egin osteko bost eguneko gehieneko epean, bermatutako haien gordailuen zenbateko egoki bat, haien sostengua estaltzeko. Aipatutako zenbatekoa itzuli beharreko zenbatekotik kenduko da. Epe horretan ez bazaizu itzuli, gordailuak bermatzeko sistemarekin harremanetan jarri behar duzu, itzulketa erreklamatzeko denbora mugatua izan baitaiteke. Informazio gehiago lortzeko, kontsulta ezazu www.fgd.es.

Bestelako informazio garrantzitsua.

Oro har, gordailugile txikizkari guztiak eta enpresak gordailuen berme-sistemek estalita daude. Gordailu jakin batzuei aplikatzen zaizkien salbuespenak kontsulta ditzakezu gordailuen ardurazko berme-sistemaren webgunean. Zure kreditu-erakundeak, horretaz gain, jakinarazi egingo dizu, zuk hala eskatuz gero, produktu jakin batzuk estalita dauden edo ez. Gordailuak estalita badaude, kreditu-erakundeak baieztatu egingo dizu kontuaren laburpenetan.

Bankuarekin dituzun zorrak kontuan izango dira Gordailuak Bermatzeko Funtsak bermatutako eta itzuli beharreko zenbatekoa kalkulatzeko.

Ez dira bermatutako gordailutzat joko norberaren kontura eta bere izenean beste kreditu-erakunde batzuk egindakoak, ezta hurrengo subjektu eta finantza-erakundeek egindakoak ere: 1. Balore-sozietate eta agentziak. 2. Aseguratzailak. 3. Higigarrietako inbertsio-sozietateak. 4. Inbertsio kolektiboko erakundeek sozietate kudeatzaileak, pentsio-funtsen, titulizazio eta kapital-arriskuko funtsen sozietate kudeatzaileak eta kudeatzen dituzten erakundeek gordailuak. 5. Zorroak kudeatzen dituzten sozietateak eta aholkularitza finantzarioko enpresak. 6. Arrisku-kapitaleko sozietateak eta dagozkion sozietate kudeatzaileak. 7. 2013ko ekainaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 575/2013 (EB) Erregelamenduaren 4.1.26) artikuluan definitutako beste edozein finantza-erakunde. Kreditu-erakundearen berezko funtsek ere ez daukate estaldurarik, ezta kreditu-erakundeak jaulkitako zorraren balore adierazgarriek, ordaindukoek eta efektu negoziagarriek ere. Administrazio publikoek osatutako gordailuek ere ez daukate estaldurarik, urtean 500.000 eurokoa edo txikiagoa den aurrekontua duten tokiko erakundeek osatutakoak salbu. Ez dira bermatuko aurreko ordenean aipatutako pertsona titularren baloreak, ezta Administrazioenak ere.

13. Baldintza orokorrak.

1.41. BANKUAK espresuki oharazten dio titularrari, Kontratazioarako Baldintza orokorrei buruzko apirilaren 13ko 7/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera, kontratu honetako baldintza guztiak Baldintza orokorrak direla.

14. Legeria.

1.42. Kontratu honi Espainiako legeria aplikatuko zaio. Kontratu honen gai guztietarako, aldeek adosten dute foru baten menpe jartzea non BEZEROAK bere egoitza izango duen kontratu honen arabera.

BALDINTZA PARTIKULARRAK

Zorroaren zenbakia

.....(e)n(e)koren(ea)n

Batetik,

BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A. (aurrerantzean, "BANKUA"), IFKa A-48265169, eta egoitza soziala Bilbon, San Nikolas plaza 4, inskribatuta Bizkaiako Merkataritza Erregistroan 2083. liburukia, 1545. liburua, 3. atala, 14741. orrian, eta Espainiako Bankuko Erakundearen Erregistroan 0182. zenbakiarekin, inbertsio-zorroaren kudeaketa pribatu eta individualizatuaren zerbitzua emateko gaitutako erakundea.

eta bestetik,

a) Pertsona fisikoak:

IZEN-DEITURAK:IFZa:

Herritartasuna:

Egoitza fiskala

Kalea:

Herria:..... Posta-kodea:

Probintzia: Telefono-zenbakia:

Posta-helbidea

Kalea:.....

Herria:..... Posta-kodea:

Probintzia: Telefono-zenbakia:

b) Pertsona juridikoak:

Izen soziala, IFKarekin

Merkataritza Erregistroan inskribatuta

orria, orrialdea

hurrengoak nahikoa ahalordea betez ordezkaturatuta:

Egoitza fiskala

Kalea:.....

Herria:..... Posta-kodea:

Probintzia: Telefono-zenbakia:

Posta-helbidea

Kalea:.....

Herria:..... Posta-kodea:

Probintzia: Telefono-zenbakia:

(aurrerantzean, "TITULAR/RAK", izaera generikoarekin, "TITULARRA" edo "BEZEROA"):

ERABAKI DUTE

Inbertsio gaietako aholkularitza kontratu hau egikaritzea, alde kontratatzaileek haien sinadurarekin dokumentu hau sinatuz haien adostasuna ematen diete **kontratu honetako BALDINTZA OROKORREI** eta haren parte diren **BALDINTZA PARTIKULARREI**, jarraian deskribatzen dira:

Lehenengoa (Kudeatutako zorrora egindako ekarpena)

Titularrak bere izenean BBVA irekitako kontu korrontea edo gordailu eta/edo baloreak administratzeko kontuan une bakoitzean gordailututako eskudiruaren eta/edo baloreen jabea izatea aitortzen du titularrak eta horiek kontaktzen dira hurrengo zazpigarren hitzarmenean.

Gordailu eta/edo baloreak administratzeko kontuan edo kontu korrontean hasieran emandako balore edo eskudiruaren laburpena aldatu ahal izango da ekarpen berrien, ateratzeen edo baloreen intsuldaketan ondorioz, hurrengo ondorioz, besteak beste: erosketak, salmentak, harpidetzak edo itzultzeak eta gerta daitezkeen amortizazioen ondorioz.

Zure zorrora egindako eskudiru edo edozein motatako tresnen ekarpen berriek aholkatutako zorroaren ondarea integratuko dute.

Bigarrena (arriskuaren profil orokorra) (*)

(*) X batekin adieraziko da "kudeatutako zorroaren" profila, kontratu hau harpidetu aurretik egindako egokitasun ebaluaziotik lortutakoa.

- Oso baxua
- Baxua
- Ertaina
- Altua
- Oso altua

BEZEROAK osatutako egokitasun ebaluazioaren emaitzari dagokio arrisku-profila.

BEZEROAK noiznahi Baldintza partikular hauetan adierazitako arriskuaren profil orokorra aldatu ahal izango du Baldintza orokorretako 1.2 eta 1.3 ataletan jasotzen diren baldintzetan egokitasun ebaluazio berri bat osatu eta sinatuz.

Arrisku-profilen definizioa:

Oso txikia: % 10era arte errenta aldakorrean; **Txikia:** % 30era arte errenta aldakorrean; **Ertaina:** % 50era arte errenta aldakorrean; **Handia:** % 70era arte errenta aldakorrean; **Oso handia:** % 100era arte errenta aldakorrean. Ehuneko horiek orientagarriak dira, eta BANKUAK alda ditzake merkatuen baldintzen eta irizpide profesionalaren arabera. Gainera, kontuan hartuko dira laugarren hitzarmenean hautatutako aktiboak, profil inbertitzailea eta egin daitezkeen eragiketak koherenteak izan daitezkeen.

BANKUAK ohartarazten du inbertsioaren objektu den produktuaren errenta finko edo aldakorreko izaera ez dela bere arriskua zehazten duen elementu bakarra, eta beste faktore batzuk kontuan hartu behar dira, adibidez, aktiboak antolatutako merkatuen batean kotizatzen duen; bere epemuga; errenta finkoko aktiboen balorazioari eragin diezaioketen interes-tasen etorkizuneko bilakaera; tresnak ordaintzeko lehentasun ordena jaulkitzailearen kaudimengabezia egoeretan; merkatuko hainbat partaidek tresnen inguruan egindako balorazioa haien interes inbertitzaile/estaldura eta aukeren eta abarren arabera.

Halaber, BANKUAK espresuki ohartaraziko dio BEZEROARI bere lehentasun inbertitzaile eta arrisku-profilaren arabera zorroek aktibo hautagarri gisa onar ditzaketela produktu konplexuak, hala nola, lehentasunezko partaidetzak, finantza-tresna deribatutako, inbertsio-produktu alternatiboak, etab.; baita profil oso baxu, baxu edo ertainekoak ere, izaera horretako produktuak barne har ditzakete haien osakerako aktiboen artean.

Hirugarrena (inbertsioaren denbora-aukera) (*)

(*) Markatu soilik alternatiba posibleetako bat. Ez bada ezer markatzen, ulertuko da denbora-aukera 5 URTE BAINO LUZEAGOA dela.

- 6 hilabete baino laburragoa
- 6 hilabete eta 2 urteen artean
- 2 eta 5 urte artean
- 5 urte baino luzeagoa

Eremu geografikoa:.....

BEZEROAK osatutako egokitasun ebaluazioaren emaitzari dagokio inbertsioaren denbora-aukera/joera geografikoa.

BEZEROAK noiznahi Baldintza partikular hauetan adierazitako inbertsioaren denbora-aukera/joera geografikoa aldatu ahal izango du Baldintza orokorretako 2.4 eta 2.5 ataletan jasotzen diren baldintzetan egokitasun ebaluazio berri bat osatu eta sinatuz.

Laugarrena (erreferentziako benchmarka)

BEZEROAK zorroaren kudeaketan lortutako emaitza ebaluatu ahal dezan, BANKUAK horretarako hurrengo ebaluazio eta konparazio metodoa erabiliko du

Zure zorroaren eboluzioa behatzeko erabilitako konposatutako erreferentzia-indizea (benchmarka) BEZEROAK hautatutako arrisku-profilari dagokion aktibo motaren (errenta aldakorra, errenta finkoa, alternatiboak eta diru-merkatua) eta aukeratutako joera geografikoaren ehunekoak aplikatzearen emaitza izango da, eta horiek kontratuak jasota daude.

Benchmarka kalkulatzeko BANKUAK erabilitako indize indibidualak merkatu eta dibisa bakoitzerako adierazgarrienak izango dira une oro, eta Baldintza orokorren 6.1.h) klausulan xedatutakoaren arabekoak, BEZEROARI hileroko jakinaraziko zaio erabilitako indizeen xehetasunari eta horiek zure zorroari lotutako benchmarkean duten pisuari buruz.

Halaber, benchmarkaren jarduketari dagokion informazioak erreferentzia egiten dion epealdian zehar zorroaren errendimenduaren grafiko konparatiboaren informazioarekin batera aurkeztuko da.

Bosgarrena (gomendatu ahal izango diren aktibo motak)

5.1. Aktibo motak: BEZEROAREN baimena

(*) Adierazi X batekin alternatiba egokia. Ez bada ezer markatzen, BANKUAK ulertuko du EZINGO direla egin mota horretako eragiketak.

Baloreak eta finantza-tresnak	BAI	EZ
Diru-aktiboak eta errenta finkoa		
Izaera ez konplexuko IKE armonizatu eta espainiarrak		
Errenta aldakorreko aktiboak		
Bermearekin egituratutako bonuak		
Kontratu finantzarioak eta bermerik gabe egituratutako bonuak		
Lehentasunezko eta menpeko zorra		
Inbertsio alternatiboa		

Bigarren mailako merkatuan kotizatutako EA (errenta aldakorra) ez konplexuaren gaineko harpidetza eskubideak		
Inbertsioak egiteko produktu deribatuak		
Arriskuaren kudeaketarako (estaldura) produktu deribatuak		
Maileguen estaldurak		

5.2. Aktibo jakin batzuen arriskuari buruzko informazioa

BANKUAK zehazki ohartarazten dio BEZEROARI finantza-tresna deribatuetan egindako inbertsioak, baita arriskuaren kudeaketarako erabilitako horiek ere, arriskuak dakartzala; besteak beste, deribatuen kontratuen balorearen mugimenduaren eta arriskuaren estaldura edo kudeaketa elementuen arteko korrelazio ez-perfektua izateko aukera. Horrek eragin dezake finantza-tresna deribatuak ez izatea aurreikusitako arrakasta guztia.

Finantza-tresna deribatuak erabiltzeak, arriskua kudeatu edo inbertsioak egiteko helburuekin, inbertsio kontatuek ez dituzten arrisku gehigarriak izaten dituzte, sortzen duten palanka-efektuagatik. Horregatik, bereziki sentikorrek dira azpikoaren prezio aldaketetara, eta zorroaren balioan galerak biderka daitezke.

Horretaz gain, ohartarazten da deribatuen merkatu antolatuetan kontratatu ez diren finantza-tresna deribatuak erabiltzeak arrisku gehigarriak dakartzala; adibidez, kontrako alderdiaren ez betetzea, ez baita existitzen aldean artean jarriko den eta eragiketen betetze zuzena ziurtatuko duen konpentsazio-ganberarik.

Halaber, BANKUAK BEZEROARI ohartarazten dio finantza-tresna deribatuekin egindako eragiketetan funtsezko elementua epea dela, eta haren kontratazioan besterik adierazi ezean, mota horretako edozein eragiketaren alde aurreko ezeztatze orok aldean aurretiko akordioa eskatuko du; eta merkatuko prezioetan egingo da, eta horrek BEZEROARI galera ekonomiko bat eragin diezaiolke, eta une horretara arte eskuratutako irabazi posiblea baino handiagoa izan daiteke.

BANKUAK zehazki ohartarazten dio BEZEROARI inbertsio-produktu alternatiboen (aktibo higiezinekin egindako operatiboari erreferentzia egiten dieten balore eta finantza-tresna deribatuak, arrisku-kapitaleko erakundeak, hedge funds, azpiegitura-funtsak, eta abar) izaera eta funtzionamenduaren inguruan: produktu horien funtzionamenduaren mekanikan, besteak beste, hurrengo faktoreak bateratu daitezke: denbora luzez likidezia falta, egikaritzeko balioztatutako balorearen kalkuluaren maiztasun baxua, CNMVren pareko profesionaltasun eta kalitate estandarrak dituen baloreen merkatuko erakunde arautzailearen baten erregulazio eta ikuskapenean oinarritutako inbertitzaileen babesaren pean operatiboa ez jartzea, paradisu fiskalean oinarritutako inbertsioa, ondoriozko gardentasun faltarekin eta Gordailuak Bermatzeko Funtsaren aldeko estaldurarik gabe, edo arriskuarekiko esposizio handia, besteak beste, merkatu eta kontrako alderdiarena.

Seigarrena (BEZEROAREN esanbidezko baimenak) (*)

(*) Adierazi X batekin alternatiba egokia. Ez bada ezer markatzen, BANKUAK ulertuko du EZ dela existitzen esanbidezko baimenik.

BAIMENAREN EDUKIA	BAIMENA	
	BAI	EZ
BEZEROAK BANKUARI baimena ematen dio BANKUAK, bere taldeko erakundeek edo berak kudeatutako inbertsio kolektiboko erakundeek jaulkitako balore edo finantza-tresnen gainean eragiketak edo inbertsioak egiteko, edo BANKUAK edo bere taldeko erakunderen bat aseguratzaile edo jartzaile den jaulkipen edo salmentako eskaintza publiko bateko balore edo finantza-tresnen gainean, edo kudeatutako zorroaren titularrekin batera BANKUAREN edo bere taldeko erakundeen konturako negoziatuetatik lortutako balore edo finantza-tresnen gainean, horiek bakarrik edo BEZEROAREN kudeatutako zorroan dagoeneko dauden balore edo finantza-tresna horien posizioekin batuta kudeatutako zorroaren guztizko zenbatekoaren 100eko 25 baino gehiago ordeztzen duenean.		
BEZEROAK, aurreko puntuan barne hartutako baimenaz gain, espresuki eta izaera generikoarekin BANKUA baimentzen du bere izenean kontrata ditzan finantza-tresna deribatuak, non BANKUAK berak kontrako alderdi gisa jotzen duen horietan, betiere antzeko ezaugarrietako bezeroentzako merkatuko prezioan kontratatzen direnean.		
BEZEROAK jarraian adierazitako kontu globalen erabilera baimentzen du atzerriko merkatuen ohiko operatiboak hala agintzen duenean, eragiketa-, zaintza-, ordainsariak ordaintzeko arriskuen edo kontu globalen operatiboari eta haien kreditu-kalitateari atxikitako eskubide politikoen erabilpenaren inguruan informazioa jaso duelarik. Horiek barne hartzen dira kontratu honekin aldi berean sinatutako baloreen zaintza eta administrazio kontratuan: <ul style="list-style-type: none"> • Clearsteam • Bank of New York 		
BEZEROAK kontratu honetatik eratorritako informazio eta jakinarazpenen bidalketa baimentzen du		
BEZEROAK espresuki eta izaera generikoarekin BANKUA baimentzen du bere izenean zor publikoko salerosketa eragiketak egin ditzan BANKUAK berak kontrako alderdi gisa jarduten duen berrerosteko itunarekin, betiere horiek merkatuko prezioan egiten direnean.		
BEZEROAK baimena ematen du kontratu honetatik eratorritako informazioa eta jakinarazpenak www.bbva.es (bezeroa pertsona fisikoa denean) edo bbvanetcash.com (bezeroa pertsona juridikoa denean) webguneetako eremu pertsonalaren bitartez jasotzeko, eta horietara sartuko da dagozkion gakoak erabiliz.		
BEZEROAK kontratu honetatik eratorritako informazio eta jakinarazpenen bidalketa baimentzen du hurrengo helbide elektronikora		



Zazpigarrena (kontuen identifikazioa).

ESKUDIRUAREN ERAKUNDE GORDAILUZAINA:

Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A

Kontu korrontearen zenbakia:

BALORE ETA FINANTZA-TRESNEN ERAKUNDE GORDAILUZAINA:

Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A.

Balore kontuaren zenbakia:

Zortzigarrena (Kudeaketa aginduari jarritako mugak.)

Dokumentu hau betez titularrak BBVA bideratzen du kontuan izan ditzan jarraian zehaztutako mugak hurrengo balore edo finantza-tresnei buruzko operatiboari dagokionez:

.....
.....

Jasotzen diren eragiketak egiteko muga/k indarrean sartuko dira titularrak eta BANKUAK ez dutenean formalizatzen idatziz horiek guztiz edo zati batean ezeztatzen dituen dokumentu bat.

Bederatzigarrena (zorroaren kudeaketa globalaren zerbitzuaren ordainketa eta zorroaren balorazioa).

Aplikatu beharreko zorroaren kudeaketa komisioa urtekoa eta hiru hilez behin likidagarria izango da, l. eranskinean ezarritakoaren arabera. Hori gehitu egingo da BEZA eta aplikagarriak izan daitezkeen gainerako zergekin.

Hamargarrena (bezeroaren aitopenak).

BEZEROAK adierazten kontratuaren BALDINTZA OROKORRAK formalizatzen dituen liburuxkaren ale bat eta BALDINTZA PARTIKULARREN hauen beste ale bat jaso duela, bi dokumentuak euskaraz, hori izango baita ALDERDIEN arteko etorkizuneko jakinarazpenetarako erabiliko den hizkuntza.

BEZEROAK aitortzen du jaso duela balore eta finantza-tresnetan inbertsioak egitean ager daitezkeen arriskuei buruzko informazioa, bereziki, finantza-tresna deribatuen, inbertsio-produktu alternatiboen eta beste produktu konplexu batzuen kasuan. Zehazki, aitortzen du atzitu ahal izango duela informazioa eta beharrezko denbora eta arreta eskaini dizkiola gomendioak mintzagai duten edozein produkturi buruzko zalantzak argitzeko.

Era berean, BEZEROAK adierazten du alde aurretik BANKUAK jakinarazi diola argibideren bat behar izan duten Kontratuaren alderdi guztiei buruz, ulertu dituela eta BANKUARI helarazitako datuen egiazkotasunaz arduratzen direla.

Era berean, aitortzen du jaso duela BBVAren jarduketa zuzentzen duen egikaritze hoberako politikari dagokion dokumentua eta bere interes-gatazken kudeaketa politikaren laburpena. Biak eskuragarri daude bankuaren webgunean, eta horretaz gain emandako zerbitzuarekin erlazioatutako pizgarriei buruzko informazioa ere jaso du.

BEZEROAK aitortzen du BANKUAK emandako aholkularitza zerbitzuari buruzko egokitasun ebaluazio bat ezarri diola bere profilarlekiko zerbitzuaren egokitasuna zehazteko. Horretarako eman du bere ezagutza eta eskarmentu inbertitzaileari, egoera finantzario eta inbertsio-helburuei buruzko beharrezko informazioa, eta horren guztiaren kopia bat eman zaio, behar bezala sinatuta.

Alde parte hartzaileek orrialde honetan estanpatutako sinadura bakarrarekin bere adostasuna eta onarpena ematen diote kontratu honen osotasunari, bertan ezartzen diren zehaztapen, baldintza eta erantzukizunen arabera, eta horren froga gisa eta hitzartutakoa betez bi ale sinatzen dituzte.

BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A.	TITULARRA/K
Ahalordez,	Baldintza orokorren 6/2016 bertsioaren ale bat jaso dut/dugu, eta baita aplikagarriak diren komisioen tarifa, baldintzak eta gastuak eta balorazio-arauak ere.